



ACT- MC-2018/0070

KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA
ASFALTOS Y CONSTRUCCIONES MORGAS EN EMPRESAS INSCRIPCIÓN AZERTZEA

Espedientea, gakoa eta bileraren gai-zerenda: GI-627 ERREPIDEAN (29,600 KP), OINEZKO IBILBIDEAN, TRAFIKOA MANTSOTU ETA SEGURTASUNA HOBETZEKO NEURRIAK (1-SV-9/2018). Asfaltos y Construcciones Morga SL enpresaren inskripzioa aztertzea.

Eguna: 2018ko urriaren 23a

Hasiera/amaiera ordua: 9:30/10:00

Tokia: Bide Azpiegiturako Departamentuaren 2. gela (Miramon pasealekua, 166.)

Bertaratutakoak:

Mahaiburua: Agustin López-Doriga Fernández, Bide Azpiegituren Proiektuetako eta Eraikuntzako Zerbitzuko burua.

Bokalak: Susana Luzuriaga Mocoroa, Bide Azpiegituren Birgaitze eta Berrikuntzako Zerbitzuko burua.

Jon Ander Arrieta Berasarte, Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailatza eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkaria.

Elixabete Martinez Iruretagoiena, Departamentuko idazkari teknikoa.

Idazkaria: M^a Carmen Delgado Vallejo, Kontratazio Zerbitzuko buruaren ordezkaria.

Goian aipatutako leku eta orduan, kontratazio-mahaiko kideak elkartu dira Asfaltos y Construcciones Morga, SL enpresak aurkeztutako dokumentazioa aztertzeko. Ekintza honetarako mahaiburuak Mari Carmen Delgado Vallejo izendatu du, idazkariaren ordezkaria, baldintza administratibo berezien agiri 22. baldintzak dioten arabera.

9/2017 Legearen hirugarren xedapen iragankorraren arabera, eta baldintza administratiboen agiriaren ezaugarrien taulako 13. atalaren arabera, Asfaltos y Construcciones Morga, SL enpresari, Lizitatzaileren erregistroan, etena zeukatelako, agertzen ez zen kaudimena justifikatzeko errekerimentua egin zitzaion.

Asfaltos y Construcciones Morga, SL enpresak errekerimenduari erantzuteko, kaudimenaren etena altxatzen duen Kontratazio Publikoaren Batzorde Aholkulariaren Komisia kalifikatzailearen idazkaritzak egindako Akordioaren, urriaren 18ko, proposamena aurkeztu du.

9/2017 Legearen 140.4 artikulua, gaitasuna eta kaudimenari buruz hau dio:

4. *Aurreko ataletan agertzen diren gaitasuna, kaudimena eta kontratatze debekurik ez egotea, eskaintzak aurkezteko azken egunean eman behar dira eta kontratua formalizatze momentuan mantendu.*

Espediente honetan, eskaintzak aurkezteko azken eguna irailaren 26a zen, eta enpresak ez du justifikatu data horretan kaudimenari zegozkion baldintzak betetzen zituela. Hori dela eta, eskaintzak aurkezteko azken egunean kaudimenaren justifikazioari buruz hitz egin eta eztabaidatu ondoren, Sektore Publikoko Kontratazio Legearen, 9/2017 Legearen, 140.4 artikulua arabera, Kontratazio-mahaia Asfaltos y Construcciones Morga, SL enpresa baztertzea erabaki du, eskaintzak aurkezteko azken egunean kaudimena zuela ziurtatu ez duelako.

Asfaltos y Construcciones Morga, SL enpresaren kanporatzearen ondoren, esleipen-proposamena Excavaciones y Obras de Diego, SL enpresarentzat izango da. Enpresaren eskaintzaren zenbatekoa 126.291,98 euro (BEZik gabe) da eta 8 asteko epea.

Eta horrela jasota gera dadin egin da Akta hau, eta berau onartu ondoren egintza amaitutzat eman da.

Donostia, 2018ko urriaren 23an

IDAZKARIA, ordezkarienez


Sin.: M^a Carmen Delgado Vallejo